

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

2025eko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergarako kobrantza-aldia irekitzea

Nerea Bengoa García de Cortázarrek, Legutioko Udaleko alkateak, hau adierazten dut:

2025eko urriaren 19tik 2025eko abenduaren 19ra bitarteko egun baliodunetan, biak barne, borondatezko epean kobratuko dira 2025eko ekitaldiari dagozkion Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren ordainagiriak.

Borondatezko epea 2025eko urriaren 19tik 2025eko abenduaren 19ra bitartekoa izango da. Helbideratutako ordainagiriak 2025eko abenduaren 19an kobratuko dira.

Adierazitako epea igaro ondoren, premiamendu-prozedura betearazleari ekingo zaio, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 28. Artikuluan eta Dirubilketa Erregelamenduan ezarritako xedapenekin bat etorritik, eta borondatezko epean ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira, dagokien errekararekin.

Ordainketa helbideratuta duten zergadunek ez dute inolako kudeaketarik egin beharko banku-helbideratzearen kontua mantentzen badute. Udala arduratuko da ordainketa izapidetzeaz. Ordainketa helbideratuta ez dutenek borondatezko aldiari Kutzabankeko bulegoetan, Legutioko Udalaren bulegoetan egin ahal izango dute ordainketa, kreditu-txartelaren bidez eta Internet bidez, www.legutio.eus webgunean (nireordainketa).

Zergadunek beren zerga-zorrak banku eta kreditu-erakundeetan helbideratzea komeni dela gogorarazten da. Era berean, hurrengo jakinarazpenetarako, banku helbideratzeen altak edo aldaketak, bai eta helbide aldaketak ere, Legutioko Udalean izapidetu beharko dira.

Legutio, 2025eko irailaren 8a

Alkatea

NEREA BENGUA GARCÍA DE CORTÁZAR